



hartza musika

KUP

MAITEAGOAK

Diskaren aurkezpena

GABRIEL BALTES, zuzendaria



KUP TALDEA



Beasaino Udala



Tfnoa 943 02 81 05

musikal@beasain.eus

www.beasaingomusikaeskola.eus

Tfnoa 943 02 80 50

udala@beasain.eus

www.beasain.eus

Andre Mari Zeruratuaren Parrokian
2021eko abenduaren 18an, 19:00etan

GABRIEL BALTES, Forbach - Frantzia, 1947.

1983-1994 bitarte Metz-eko Unibertsitateko musika pedagogia eta abesbatza zuzendaritzan irakaslea izan zen. 1991-2007 bitarte Lorraine-ko Maisu-maistren Prestakuntzako Unibertsitate Institutuko irakaslea. 2001-2018 bitarte Donostiako Musikenen Koru zuzendaritzako irakaslea.

KUP Taldearekin zuzendari lanetan:

-2006an Bilbon "Veni Creator" obrako sorkuntzan parte hartu zuen, Gabriel Erkorekaren perkusio, organo eta ganbera-abesbatzarako, hain zuzen ere.

-2008an Tolosako 40. Abesbatza Lehiaketan 3. saria, "folklore" kategorian.

-2009an Mariborreko -Eslovenia- 10. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan 1. saria, eta Jacobus Gallusen obra baten interpretazio onenaren saria.

-2010an "Florilège Vocal de Tours"eko Lehiaketan bi Lehenengo Sari: Ronsard Berpizkunde Saria eta Tourseko Sari Nagusia.

-2018an Tolosako 50. Nazioarteko lehiaketan Zuzendari onenaren saria.

-2019an Mariborreko -Eslovenia- 15. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan 2. saria.

KUP Taldea 2003an jaio zen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia den Musikeneren inguruan, eta hango abesbatzen zuzendaritzako irakasle Gabriel Baltés maisuaren gidaritzapean. Ordutik, Euskal Herriko txoko guztietatik etorritako abeslariz hornitu izan da etengabe, eta, 16 laguneko hasierako taldetxo hura gaur egun ezagutzen dugun talde anitz eta mardul bilakatu da. 18 urteko ibilbidea, proiektu zorrotz eta programa anitzez josia, oso desberdinak euren artean, baina betiere, KUP Taldeak bereak egin dituen ezaugarri eta bereizgarriak barne hartu izan dituztenak: zorrotztasuna garai eta estilo desberdinetako musika interpretatzean, eta kalitatea, oro har, ahotsei dagokienez, agerraldi guzti-guztietan. Egiteko horretan, euskal musikari ere dagokion tarte eskaini izan dio betidanik, bai egile klasikoen lanak berreskuratuz, bai egun puri-purian dauden euskal musikagileekin lankidetzan arituz, euskal musika korala sustatuz, alegia.

Guzti horren erakusgarri dira urte guzti hauetako lorpenak: hamaika sari nazioarteko lehiaketa eta festibaletan, eta aho bateko errekonozimendua kritikaren aldetik.

XABIER SARASOLA, Beasain, 1960.

Biolinean eta pianoan lizentziatua. Beasaingo Udako Musika Eskolan biolina eta harmonia irakaslea da eta abesbatza eta hari orkestrako zuzendaria da.

1986-2012 bitarte Beasaingo Loinatz abesbatzako zuzendaria izan da. Abesbatzen zuzendaritzako ikastaro eta tailerretako irakaslea eta epaimahaikidea da, besteak beste, Gorizia, Arezzo, Varna, Letonia, Tolosa, Ejea de los Caballeros, Avilés, San Vicente de la Barquera. Bere lanak derrigorrezkoak izan dira Tolosako Abesbatza Lehiaketan, eta "CM Ediciones Musicales" argitaletxeak argitaratzen ditu. Ahots zurien korurako bere musika Vocalia Taldeak grabatu du Basilio Astúlezek zuzenduta, piano-jolea bera zela.

Gaurko honetan aurkezten da KUP abesbatzak grabatutako Xabier Sarasolaren ahots mixtoetarako obra, Gabriel Baltésen zuzendaritzapean, hain zuzen ere.

MAITEAGOAK

XABIER SARASOLA

- Ave Maria
- O sacrum convivium
- Lurreko gauzak
- Sanctus
- Neguan orbela
- Maiteagoak
- Kantatzen dut kantuz
- Beltza izotza
- Mendi Goietan
- Zure boza
- Errukarria
- Bi kanta eta dantza bat

GABRIEL BALTÉS, zuzendaria